

## LABek Rojava / Siriako Ipar eta Ekialdeko unibertsitateei elkartasuna adierazteko agiria



### LAB Statement of Solidarity with the Universities of Rojava / Northern and Eastern Syria

From the LAB trade union section of the University of the Basque Country (Euskal Herriko Unibertsitatea), a class-based and feminist union, we wish to express our strongest solidarity with the faculty, students, and workers of the universities of Rojava / Northern and Eastern Syria, who today are forced to leave their classrooms to defend their universities, their cities, and the political and social project they have built in the face of war and permanent aggression.

The universities of Rojava—in Raqqa, Kobani, and Qamishlo—were established under extreme conditions, in the midst of conflict, where higher education had previously been denied. These institutions have been fundamental in guaranteeing access to education for young people, grounding learning in women's liberation, ecological life, and democratic, communal forms of social organization.

For more than fifteen years, the people of Rojava have collectively built an alternative project in opposition to capitalism, patriarchy, and authoritarianism, under constant pressure and repeated attacks by imperial powers, regional states, and colonial forces. Through self-organization, self-defense, and popular diplomacy, they have carved out a space of hope for oppressed peoples in the region and across the world.

Today, this project is under brutal attack. Fascist forces of the Syrian regime, structures linked to an Al-Qaeda lineage rebranded as state authority, and mercenary forces backed by regional and global powers, together with direct aggression by the Turkish state, are carrying out a coordinated offensive aimed at destroying this political and social process.

We denounce that the situation has reached an extreme level of gravity, marked by unfolding dynamics of genocide and femicide. University buildings have become improvised shelters for displaced people struggling to survive the winter without basic resources. Turkish drone attacks near the University of Rojava in Qamishlo, the isolation of students from their families, and the total siege of Kobani—without access to water, electricity, or essential supplies—are part of a strategy of war against life, education, and popular organization.

LAB affirms clearly that defending the universities of Rojava is inseparable from defending the right of peoples to self-determination, education as a tool of emancipation, and a social model based on feminism, ecological life, and radical democracy.

We call on the working class, trade unions, educational communities, and popular movements to organize active solidarity with Rojava: to break the silence, to denounce state complicity, and to strengthen the international networks that sustain resistance.

Internationalist solidarity is part of the peoples' self-defense. From Euskal Herria, we reaffirm our commitment to Rojava and to its struggle for freedom, women's liberation, ecological life, and a democratic, communal society.

Rojava is not alone.

Euskal Herriko Unibertsitateko klase sindikatu eta feminista den LABeko atal sindikaletik gure elkartasunik irmoena adierazi nahi diegu Rojava/ Siriako Ipar eta Ekialdeko unibertsitateetako ikasle, irakasle eta langileei. Izan ere, gaur egun behartuta bait daude ikasgeletatik alde egitera, etengabeko erasoak jasaten dituzten beren unibertsitateak, hiriak eta gerraren aurrean eraiki duten proiektu politiko eta soziala defendatzeko.

Rojavako unibertsitateak —Raqqa, Kobansamen edo Qamishlon— muturreko baldintzetan (gatazkaren erdian) sortu ziren, lehen goi-mailako hezkuntzarako inolako sarbiderik ez zegoen tokian. Ikastetxe horiek funtsezko zutabeak izan dira eta dira gazteriaren hezkuntzarako eskubidea bermatzeko, ezagutza emakumeen askapenari, bizitzarekiko harreman ekologikoari eta antolaketa sozialerako eredu demokratiko eta komunitarioari lotuz.

Hamabost urte baino gehiagoz, Rojavako herriak kolektiboki proiektu alternatibo bat eraiki du kapitalismoaren, patriarkatuaren eta autoritarismoaren aurrean, potentzia inperialisten, eskualde-estatuaren eta indar kolonialen etengabeko setio-egoeran. Autoantolaketa, autodefentsaren eta herri diplomaziaren bidez, eskualdeko eta munduko herri zapalduentzat itxaropenerako gune bat ireki dute.

Gaur, proiektu hori modu basatian erasotzen ari dira. Siriako erregimenaren indar faxistak, estatuko agintaritzak gisa birziklatutako Al Qaeda lotutako egiturak, eta eskualdeko eta nazioarteko potentziek babestutako mertzenarioak, Turkiako Estatuaren eraso zuzenekin batera, prozesu politiko eta sozial hau suntsitzea helburu duen erasoaldia gauzatzen ari dira.

Genozidio eta feminizidio dinamikek markatutako larritasun handiko egoera baten aurrean gaudela salatzen dugu. Neguan oinarrizko baliabiderik gabe bizirik irauten duten desplazatuentzako bat-bateko babesleku bihurtu dira Unibertsitateak. Estatu turkiarreko droneen bidezko erasoak Rojavako Unibertsitatearen inguruan, Qamishlo hirian, ikasleen isolamendua bere familiekiko eta Kobaneceko hiriaren erabateko setioa —ura, elektrizitatea eta oinarrizko hornigairik gabe— bizitzaren,

hezkuntzaren eta herri-antolakuntzaren aurkako gerraren strategiaren parte dira.

LABetik argi eta garbi baieztatu nahi dugu Rojavako unibertsitateen defentsa, herriek beren etorkizuna erabakitzeko duten eskubidearena, hezkuntzarena, emantzipazio tresna gisa, eta berdintasunean, feminismoan, ekologian eta erabateko demokrazian oinarritutako gizarte ereduaren defentsa ere badela.

Langile klaseari, sindikatuei, hezkuntza komunitateei eta herri-mugimenduei Rojavarekiko elkartasun aktiboa antolatzen dei egiten diegu: isiltasuna haustera, Estatuen konplizitatea salatzen eta erresistentzia sostengatzen duten nazioarteko sareak indartzera.

Elkartasun internazionalista herrien autodefentsaren parte da. Euskal Herritik, Rojavarekin dugun konpromisoa berresten dugu, bai eta askatasunaren, emakumeen, bizitza ekologikoaren eta gizarte demokratiko eta komunitarioaren aldeko borrokarekin ere.

**Rojava ez dago bakarrik.**